

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	LEHEN LAGUNTZAK	Iraupena	40
		Zeharkakoa	
Kodea	MF0272_2		
Lanbide-arloa	KIROL-JARDUERA FISIKOAK		
Lanbide-eremua	Aisialdiko gorputz- eta kirol-ekintzak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Bizikletaz egiteko ibilbideetako gida	Maila	2
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Bizikletaz egiteko ibilbideen azterketa eta kudeaketa	Iraupena	50
	Ingurune naturaleko joan-etorriak, egonaldiak, eta segurtasuna, eta lekuko bertako orientazioa (zeharkakoa)		30
	Olgeta-jarduerak egitea, eta kirol-jarduera autonomia pertsonala mugatua duten pertsonentzat egokitzea (zeharkakoa)		30
	Bizikleten mantentze-lanak egitea, eta haien konpontzea eta lekualdatzea		30
	Ingurune naturaleko joan-etorriak, egonaldiak, eta segurtasuna, eta lekuko bertako orientazioa (zeharkakoa)		30
	Bizikletak askotariko lurretan gidatzea		80
	Ingurune naturalean kirol-jarduera egitea		80
	Olgeta-jarduerak egitea, eta kirol-jarduera autonomia pertsonala mugatua duten pertsonentzat egokitzea (zeharkakoa)		30
	Bizikletaz egiteko ibilbideetako gidaritzari buruzko lanekoak ez diren lanbide-jardunbideen modulua.		80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator UC0272_2 ISTRIPU EDO LARRIALDI-EGOERETAN LEHEN ESKU-HARTZAILE GISA LAGUNTZEA gaitasun-atalarekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Lehen esku-hartzaile gisa ematen den laguntzaren ezaugarriak identifikatzea.

EI1.1 Urgentziaren, larrialdiaren eta katastrofearen kontzeptuak definitzea.

EI1.2 Urgentzia- eta larrialdi-sistema integralaren kontzeptua azaltzea, eta larrialdi-sistemen antolaketa deskribatzea.

EI1.3 Oinarrizko medikuntza- eta osasun-terminologia erabiltzea.

EI1.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, istripua izandako pertsonak manipulatzaren ondorioz gerta litezkeen lesioetatik norbera babesteko teknikak aplikatzea.

EI1.5 Larrialdietako botikinaren gutxieneko edukia eta substantzien eta sendagaien jarraibideak deskribatzea.

A2: Hasierako balorazioko teknikak aplikatzea, ezarritako protokoloari jarraikiz, istripua izan duenarengana modu egokian iristeko eta ingurune segurua sortzeko.

EI2.1 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean:

- Istripua izan duenarengana iristeko modurik onena identifikatzea eta justifikatzea.
- Arriskuak identifikatzea.
- Eremua prozedura egokiaren arabera babestea.
- Istripua izan duenarengana iristeko behar diren maniobrak egitea.

EI2.2 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, istripua izan duenaren hasierako balorazioa egiteko jarduerak jarraibideak betetzea, protokoloaren arabera.

EI2.3 Bizi-arriskuko egoerak identifikatzea, eta egoera horietarako jarduerak definitzea.

A3: Bizi-euskarriko teknikak aplikatzea, ezarritako protokoloaren arabera.

EI3.1 Bihotz-biriketako bizkortze oinarrizkoaren eta instrumentalaren oinarriak deskribatzea.

EI3.2 Aire-bidetik buxadura kentzeko teknikak deskribatzea.

EI3.3 Bihotz-biriketako bizkortze-teknika oinarrizkoak eta instrumentalak manikietan aplikatzea.

EI3.4 Bihotz-biriketako oinarrizko teknikak manikietan aplikatzea, oxigenoterapia-ekipoa eta desfibriladore automatikoa erabiliz.

A4: Lesiorik edo patologiarik ohikoenetarako eman behar den lehen laguntza identifikatzea, eta ezarritako protokoloen arabera ematea lehen laguntzako teknikak.

EI4.1 Lesiorik, patologiarik eta traumatismorik adierazgarrienak eta haiek prebenitzeko kontuan hartu beharreko alderdiak adieraztea, jarduera egingo den ingurunearen arabera, honako alderdi hauek zehaztuta:

- Haiek eragiten dituzten arazoak.
- Sintomak eta zeinuak.
- Jarduteko jarraibideak.

EI4.2 Arriskua handiegia delako edo kasua beste profesional batzuentzako espezifiko delako zuzenean esku hartzea saihestu behar den kasuak eta/edo egoerak bereiztea.

EI4.3 Arriskua handiegia delako edo kasua beste profesional batzuentzako espezifiko delako lehen esku-hartzaileak bere kabuz aplikatu behar ez dituen teknikak bereiztea.

EI4.4 Hainbat motatako lesioak biltzen dituzten istripu simulatuetako zenbait egoeratan, alderdi hauek zehaztea:

- Jarduera-lehentasunak, lesioen larritasunaren eta motaren arabera.
- Aplikatu behar diren lehen laguntzako teknikak.

A5: Beharrezkoa izanez gero, istripua izan duena ebakutzeko aukera emango duten mobilizazio- eta immobilizazio-metodoak aplikatzea.

EI5.1 Istripua izan duena erreskatatzeko oinarriko metodoak azaltzea eta aplikatzea.

EI5.2 Istripua izan duena lekualdatu behar denean aplika daitezkeen immobilizazio-metodoak azaltzea eta aplikatzea.

EI5.3 Istripua izan duena mobilizatzeari eta immobilizatzeari buruzko kasu praktikoa bat —ezaugarriak behar bezala zehaztuak dituen— abiapuntua izanik, metodorik egokiena aukeratzea, istripua izan duenak izan litzakeen lesioak eta/edo istripuen inguruabarrak aintzat hartuta.

EI5.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktikoa batean, istripua izan duenari aplikatu beharreko jarrera-neuririk egokienak azaltzea eta aplikatzea.

EI5.5 Lekualdatze desegokiak istripua izan duenari ekar diezazkiokeen ondorioak azaltzea.

EI5.6 Gaixoak eta/edo istripua izandako pertsonak immobilizatze eta garraiatze esku-ohetak eta sistemak egitea, material arruntak eta ez-espezifikoak edo halabeharrezko bitartekoak erabiliz.

A6: Istripua izan duenari eta haren ahaideei laguntza psikologikoa emateko teknikak aplikatzea.

EI6.1 Istripua izan duenarekin komunikatzeko oinarriko printzipioak azaltzea.

EI6.2 Nortasuna babesteko mekanismoak eta haien erabilera praktikoa azaltzea.

EI6.3 Komunikazio-elementu desberdinak aipatzea.

EI6.4 Komunikazioa zailtzen duen eta istripua izandako bati laguntza ematen zaion egoera baten kasu praktikoa bat — ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkana— abiapuntu izanik, pertsonen arteko komunikazioa errazteko teknikak aplikatzea.

A7: Estres-egoeretan autokontrol-teknikak aplikatzea.

EI7.1 Istripuko edo larrialdiko egoeretan antsietatea zer faktorek sorrazten duten aipatzea.

EI7.2 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan eta giro-tentsioko hainbat egoera adierazten diren kasu praktikoa batean, helburu hauetarako erabili beharreko teknikak zehaztea:

- dolu-egoera bat kontrolatzeko
- antsietate- eta larritasun-egoerak kontrolatzeko
- agresibitate-egoerak kontrolatzeko.

EI7.3 Lehen laguntza eman eta emaitza onik ez den kasu batean (istripua izan duena hil egin da), laguntza eman dion pertsonak izan litzakeen estres-adierazgarriak deskribatzea, eta porrota psikologikoki gainditzeko ekintzak adieraztea.

Edukiak

1. Lehen laguntzaren oinarriak menderatzea:

- Lehen laguntzaren hastapenak. Kontzeptuak.
- Urgentzia.
- Larrialdia: larrialdi-sistemak, urgentzietako sistema integralak eta sistemen antolakuntza.
- Helburuak eta mugak.
- Printzipio orokorrak.
- Lehen esku-hartzailea.
- Profila, gaitasunak eta jarrerak.
- Lege-esparrua, erantzukizuna eta etika profesionala. Alderdi juridikoak.
- Arau zibilak.
- Onespina eskatzea.
- Arau penalak.
- Kode deontologikoa. Lanbidearen alderdi etikoak.
- Laguntza-katearen zati gisa: BOS jokaera: babestea, ohartaraztea eta sorostea. Lehen laguntzetako botikina.
- Sendaketa-materiala.

- Oinarrizko farmakoak.
- 2. Giza gorputzaren anatomia eta fisiologia lehen laguntzara aplikatzea:**
- Anatomia orokorra. Zelula eta ehun organikoak. Sistema organikoak.
 - Lokomozio-sistema.
 - Zirkulazio-sistema.
 - Arnas sistema.
 - Digestio-sistema.
 - Ugaltze-sistema.
 - Sistema neuroendokrinoa.
 - Giltzurrun-sistema.
 - Bizi-zeinuak.
 - Medikuntza- eta osasun-terminologia jakitea eta erabiltzea.
- 3. Lehen laguntzari oinarrizko bizi-euskarria aplikatzea:**
- Lehen esku-hartzailearen jarduera. Arriskuak eta babesa. Segurtasuna esku hartzean. Gaixotasunen eta kutsatzearen prebentzioa.
 - Pazienteei hasierako ebaluazioa egitea. Jardueraren plangintza egitea.
 - Pazientea aurkitzea eta harenganaino iristeko moduak.
 - Izan litezkeen arriskuak identifikatzea.
 - Eremua babestea.
 - Istripua izan duenarengana iristea. Jarduteko sistematika.
 - Konorte-maila baloratzea.
 - Aireztapena aztertzea.
 - Egoeraren arabera jardutea.
 - Biziraupen-katea. Bihotz-biriketako oinarrizko bizkortzea eta bizkortze instrumentala.
 - Protokoloak, metodoak eta oinarrizko teknikak. Bihotz-biriketako oinarrizko bizkortzea helduetan
 - Konortetik gabeko pertsona, bihotz-jardueraren zeinuak dituenak.
 - Arnas gelditzea: aireztatzen laguntzeko osagarriak eta oxigenoterapia.
 - Bihotz- eta arnas gelditzea: kanpoko desfibrilazio erdiautomatikoa.
 - Bihotz-biriketako bizkortzea: bihotz-masajea. Heriotza klinikoa eta biologikoa. Bihotz-biriketako oinarrizko bizkortzea kolektibo berezietan: bularreko haurrak, umeak eta haurdunak. Bihotz-biriketako oinarrizko bizkortzea, itotze-kasuetarako.
 - Aire-bidearen buxadura. Biktima bere kordean egotea.
 - Biktima konortetik gabe dagoela jarduteko protokoloa.
 - Jarduera-protokoloa.
- 4. Larrialdirik ohikoenetarako hasierako arreta:**
- Istripua izan duenaren ebaluazioa: lehen mailako eta bigarren mailako ebaluazioa.
 - Lesioak, gaixotasunak eta traumatismoak.
 - Kausak.
 - Sintomak eta zeinuak. Konortearen asaldurak Sukarra Gonbitoak eta beheakoa Zorabioak Lipotimiak Sinkopeak Shocka Abdomeneko mina eta taula-itxurako sabela Min torazikoa
 - Esku hartzeko jarraibideak: lehentasunak eta teknikak.
 - Esku-hartzerik ez egiteko jarraibideak. Lesio-motak.
 - Odoljarioak. Sailkapena. Sintomak eta zeinuak. Oinarrizko tratamendua.
 - Zauriak.
 - Sailkapena.
 - Sintomak eta zeinuak.
 - Oinarrizko tratamendua.
 - Erredurak.
 - Istripu elektrikoak. Elektrokuzioa: elektrizitateak eta tximistek eragiten dituzten lesioak.
 - Uretako istripuak. Itotzea. Hidrokuzioa.
 - Traumatismoak. Bihurrituak. Ubelak. Luxazioak. Hausturak. Traumatismo torazikoak. Traumatismo kraneoenzefalikoak. Bizkarrezurreko traumatismoak. Zapalketa-sindromea. Politraumatizatuak. Lekualdatzeak.
 - Beste zenbait urgentzia-egoera.
 - Intoxikazioak: alkohola eta estupefazianteak inhalatzea, ahoratzea eta ukitzea.
 - Ziztadak eta hozkadak.
 - Krisi anafilaktikoa.

- Epilepsia eta konbultsio-koadroak.
 - Deshidratatzea.
 - Gorputz arrotzak: larruazalean, begietan, belarrietan eta sudurrean.
 - Traumatismo txikiak.
 - Ama-hauren urgentiak.
 - Zirkulazio-istripuak: Jarduera-hurrenkera. Baliabideak, zirkulazio-segurtasunari eta istripuan zauritu direnei dagokienez.
 - Etxeko istripuak.
 - Beroak eta hotzak eragiten dituzten lesioak.
- Uretan izaten diren istripuetan, ospitaleratu aurreko esku-hartzea:
 - Itotze-mailaren arabera esku hartzea
 - Bizkarrezur-muineko lesioa dutenekiko esku hartzea
- 5. Istripua izan duten pertsonak jasotzea, lekualdatzea eta garraiatzea. Larrialdi kolektiboak eta katastrofeak.**
- Erreskaterako oinarrizko printzipioak.
 - Bat-batean gaixotu diren edo istripua izan duten pertsonak garraiatzeko premia ebaluatzea.
 - Lesionatuak jasotzea.
 - Mobilizatzeko eta immobilizatzeko metodorik egokienak, patologiaren arabera.
 - Segurtasuneko saiheskako jarrera.
 - Itxarote-posizio ez-kaltegarriak edo seguruak.
 - Istripua izan duten pertsonak lekualdatzea. Esku-ohreak egitea bitarteko arruntak edo ez-espezifikokoak erabiliz.
 - Istripua izan duten pertsonak osasun-zentroetara garraiatzea.
 - Bat-batean gaixotu diren edo istripua izan duten pertsonak bitarteko arruntak eta material ez-espezifikokoak edo halabeharrezkoak erabiliz immobilizatzeko eta garraiatzeko teknikak.
 - Seguru garraiatzeko posizioak.
 - Larrialdi kolektiboak eta katastrofeak. "Triade" sinpleko metodoak. Ebakuazio-noriak.
- 6. Laguntza psikologikoa eta autokontrola:**
- Istripua izan dutenari eta haien ahaideei laguntza psikologikoa emateko teknikak.
 - Psikologia orokorraren printzipioak. Nortasunaren kontzeptua eta bilakaera.
 - Komunikazioaren printzipioak, kanalak eta komunikazio-motak.
 - Laguntzailearen eta istripua izandakoaren arteko komunikazioa, eta laguntzailearen eta ahaideen artekoa.
 - Nortasuna babesteko mekanismoak.
 - Gizarte-trebetasunak krisi-egoeretan:
 - Entzute aktiboa.
 - Erantzun funtzionala.
 - Komunikazio operatiboa.
 - Biktimaren profil psikologikoa.
 - Laguntza psikologikoa larrialdi-egoeretan: krisia, dolua, tentsioa, agresibitatea, antsietatea.
 - Estres-egoeretan autokontrol-teknikak aplikatzea.
 - Babes-mekanismoak.
 - Antsietate-, agresibitate-, larritasun-, dolu- eta estres-egoerak gainditzeko autokontrol emozionaleko neurriak, teknikak eta estrategiak.
 - Aurre egitea.
 - Autozainketa.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatara sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Bizikletaz egiteko ibilbideetako gida